



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
NAVARRA · NAFARROA

NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALAREN KOMUNIKATUA

Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofiziala, COVID-19aren larrialdiaren aurrean, Nafarroako osasun-erakundeen nahiz eskubide sozialetako erakundeen alde jarri da.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME), Osasuneko Lehen Arretaren Nazioarteko Biltzarrean zehar (Alma-Ata, 1978), erabakitasunez berretsi zuen 1948an osasunaren inguruan hartutako definizioa; hau da, ongizate fisikoaren, sozialaren eta mentalaren egoera osoa, eta ez soilik gaixotasunaren gabezia bezala ulertuta, pertsonen funtsezko eskubidea izanik.

Gizarte Langintza osasun-zerbitzuetan ez ezik, Lehen Arretako gizarte-zerbitzuetan ere jorratzen da, eta honako zerbitzu hauek barne hartzen ditu: etxez etxeko arreta-zerbitzua edo adin txikikoen eta familien arreta; etxebizitza, elikadura, lana, hezkuntza eta gizarteratzea bezalako oinarrizko premiak estaltzeko zailtasunak dituzten pertsonen arreta; eta zerbitzu espezializatu publikoak eta pribatuak, tartean, egoitzetan bizi diren adinekoen arreta, dibertsitate funtzionala duten pertsonen arreta, tratu txarren biktimak diren emakumeen arreta, tutoretzapeko adin txikikoena, migratzaileen arreta, lagundu gabeko adin txikikoen arreta, etxebizitzarik gabeko pertsonentzako aterpetxeak, iragaitzazko pertsonen arreta eta espetxean dauden pertsonen arreta. Beraz, esan daiteke lanbideak sektore ahulenekin egiten duela lan, eta edozein krisik horiei modu berezian eragiten diela.

Egungo Osasun Larrialdian, talde horiek ez dira osasun-mailan arrisku handiena duten talde bezala hartzen; maila sozialean, ordea, gainerako biztanleek baino egoera konplexuagoa dute, baita egungo konfinamendu-arauak betetzeko ere. Egoera hau garrantzi handiko arazo sozialak sortzen ari da dagoeneko, eta horiek arlo sozialean jorratzea beharrezkoa izango da. Gizarte Langintza larrialdietan presente dago, lehen, bitartean eta ondoren.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak, COVID-19aren larrialdiaren aurrean, ondorengoa adierazten du:

- Nafarroako osasun-arloko eta eskubide sozialetako erakundeek gomendio guztiak bere gain hartzen ditu, betetzen ditu eta elkargokideei transmititzen dizkie.
- Maila profesionalen, bere gain hartzen ditu Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiaren eta Larrialdi Sozialetan Esku Hartzeko Estatuko Taldearen (GEIES) gomendioak, sare sozialetan eta Nafarroako Elkargoaren web orrialde ofizialean hedatuaz.
- Elkargoak babesa eskaintzen die web orrialdearen eta Elkargoaren harremanetako telefonoaren bitartez jardunean dauden profesionali.
- Eskumeneko erakunde guztien zerbitzura dago eta egongo da Osasun Larrialdiaren egoeran zehar eta ondoren, lankidetzak eskainiko du beharrezkoa den zeregin eta jardueretan, eta aktibatu ahal izango da egokitzat jotzen denean.

Iruñean, 2020ko martxoaren 27a



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL
GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
NAVARRA • NAFARROA